

Prentsarako txostena



Zientzia ikerketan eta arte eta kultur sorkuntzan oinarritutako jakintza sustatzean eta bi arlo horien arteko harremanak indartzean datza BBVA Fundazioaren lan-programaren muina. Testuinguru honetan txertatzen da Guggenheim Bilbao Museoarekin dugun lankidetzaren Babesle Estrategiko gisa, sortu zenetik lagundu eta babestu izan dugun erakundearekin, alegia. Museoak 1997ko urrian zabaldu zituen ateak, *Guggenheim Museoak eta mende honetako artea* erakusketarekin; hurrengo erakusketa handia, handik hilabete gutxitara inauguratua, *Txina: 5000 urte* izan zen, erakundearen izaera ordurako ondo asko jaso zuena. Harrez geroztik, urtean behin, erakusketa bat eraman izan dugu aurrera, helburu hau hartuta: bisitariarengana hurbiltzea eremu kultural eta geografiko zabaletako artea —Errusia edo Azteka Inperioa—, teknika artistikoak —marraskilaritza, besteak beste—, zeharo berriak diren formatuak —esaterako, Louise Bourgeoisen *Gelak*— eta hainbat sortzailearen lanak, gure garaia, hura itxuratzen duten aldaketa sozialak eta gizatasunaren esentzia bera hobeto ulertzen lagundu digutenak —Edgar Degas, Pablo Picasso, Claes Oldenburg edo Jeff Koons, besteak beste—.

BBVA Fundazioak bere ekarpena egin du *Espresionismo Abstraktua* osatzen duten artista gailenen 130 obra baino gehiago Guggenheim Bilbao Museoan bildu ahal izateko egin den izugarritzko ahaleginean. Eta katalogoa ikustean pozgarria zait halako erakusketa bikian bat babestea, garrantzi handiko artelanak biltzen baititu, zenbait kasutan Amerikako kontinentetik lehen aldiz ateratakoak. Horrez gain, irakurleari helarazi nahi nioke zein pozgarria den BBVA Fundazioarentzat Museoaren XX. Urteurrenaren ospakizunera elkartzea proiektu paregabe honen bitartez, era horretan erakundearekin dugun konpromisoa berritzen dugula kontuan hartuta, gainera. Gure garaiko artea bultzatzea baita gizarrentzat, bere dimentsio kulturalaren bitartez, egiten diogun ekarpenetako bat.

Pintura, eskultura eta argazki hauei darien indarrak eta bizitasun handiak XX. mendeko artean eragin nabarmena izan zuen mugimenduetako baten dinamismoa aditzera ematen digute. New Yorken sortu eta nazioarteko joera bilakatutako mugimendu honetako artistek, abstrakzio formala landuz, artearen historian aurrekaririk ez zuen adierazpen askatasuna garatu zuten. Espresionismo Abstraktuak aurretik ezarrita zeuden konbentzioak hautsi bazituen ere, ordezkatzeko zuten artista nagusiek oso iturri heterogeneoetara jo zuten —arte primitiboa, Erromantizismo alemana, Surrealismoa, Kubismo edo Espresionismoa, besteak beste— eta maisu handien eragina ere jaso zuten —Jeronimo Bosch edo Rembrandt, besteren artean—. Espresionista abstraktu ugariaren biografiak, pasadizo dramatiko eta latzez beteak, eta euren artea garatu zuteneko gerra osteko nazioarteko testuingurua, hemen ikusgai jarritako obra gehienetan antzematen den indarraren eragileetako bat izan ziren, kontuan izanik giza existentziaren espektro zabala biltzen dutela, alderdi lurtarrenetatik hasi eta gai poetiko, mitiko eta transzendentetara ere doana.

Uste osoa dut ugariak izango direla artista estatubatuar ospetsuenen sorkuntza enblematiko hauek behatu nahi izango dituzten bisitariak, mugimendu honetako sortzaileen ikerketa formalak, intelektualak, emozionalak eta espiritualak hurbiletik ezagutzera etorriak. Artelan bakoitza ikuslearen erantzunarekin atzera elikatzea izan zen Espresionismo Abstraktuaren premisetako bat. Atzera begirako honek, beraz, aukera paregabea eskaintzen digu arteak gure barnean pizten dituen emozioak askatzeko.

Hogeigarren urteurren honetan, zorionak eman nahi dizkiot Guggenheim Bilbao Museoaren profesional-talde bikainari, Juan Ignacio Vidarte buru dela, baita erakusketa hau gauzatu duten David Anfam, Lucía Agirre eta Edith Devaney komisarioei ere, berriro ere, Bilbo kultura garaikidearen gune nazionala eta nazioartekoa bilakatzea ahalbidetzeagatik eta aparteko proiektu museistiko honetan parte hartzeko aukera emateagatik.

Expresionismo Abstraktua

- Datak: 2017ko otsailaren 3tik ekainaren 4ra
 - Londresko Royal Academy of Artsek antolatutako erakusketa, Guggenheim Bilbao Museoarekin elkarlanean
 - Komisarioak: David Anfam, Edith Devaney eta Lucía Agirre
 - BBVA Fundazioak babestua
- **Aurreko Kubismoak eta Surrealismoak ez bezala, Expresionismo Abstraktuak saihestu egin zuen ezarritako formula oro, eta ospatu egin zituen aniztasuna eta askatasun indibiduala.**
 - **Expresionismo Abstraktuko artelaneak berriro definitu zuten pinturaren izaera. Gehienetan oso eskala handiko mihiseetan landuak, espontaneoak eta espresibitate eta bizitasun handikoak dira batzuetan, eta kontenplaziozkoak, besteetan.**
 - **Pollock-ek zioenez “Pintura abstraktua abstraktua da. Aurre egiten dizu”. Artistak bere emozioak adierazten zituen artelana egitean, eta bertan jasota geratzen ziren; ikuslearen pertzepzioak bukatzen eta osatzen du obra, ordea.**

Guggenheim Bilbao Museoak *Expresionismo Abstraktua* aurkezten du, 1940ko hamarkadan, New Yorken, pinturaren erabateko aldaketaren eta bere goraldi berriaren eragile izan ziren artisten lanen hautaketa bikaina ikusteko aukera emango digun erakusketa. Jackson Pollock, Mark Rothko, Willem de Kooning, Robert Motherwell, David Smith edo Clyfford Still, hautatu diren artistetako batzuk dira beste askoren artean, mundu osoko bilduma publiko eta pribatuetako 130 pintura, marrazki, eskultura eta argazki baino gehiago biltzen dituen erakusketa honetarako. Erakusketak ikuspegi berri batetik begiratzen dio Expresionismo Abstraktuari, hainbestetan osotasun bat balitz bezala oker hartu izan den gertakari hau bere dibertsitatean, konplexutasunean, eta bere fazeta anitzetan erakutsi nahian. Erakusketa Bilbon aurkeztea a BBVA Fundazioaren babes eskuzabalari esker eta Terra Foundation for American Art erakundearen laguntzak ahalbidetu dute.

*Free jazz*aren eta *beat* belaunaldiaren poesiaren urteetan, Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan, artista talde batek ezarritako zeuden konbentzioak apurtu eta mugimendu baten sorrera bultzatu zuen. Artista haiek bai bizitzan bai artean bizitzen ari ziren esperientziak elkartu zituzten, nahiz eta bakoitzak bere estilo propioa landu. Aurretik izan zituen Kubismoak eta Surrealismoak ez bezala, Expresionismo Abstraktuak ihes egin zion ezarritako formula orori, eta aniztasuna eta askatasun indibiduala ospatu zituen espresatzeko garaian.

Eskala kolosala duten obrak dira mugimendu honen ezaugarrietako bat. Artelanak espontaneoak eta bizitasun eta espresibitate handikoak dira zenbaitetan, eta kontenplaziozkoak beste batzuetan, kolore-eremu handietan landuak. Lan horiek berriro definitu zuten pinturaren izaera, eta urrutitik behatzeko ez ezik, artistaren eta behatzailearen arteko norabide biko elkarraldi bat izateko ere sortu zituzten. Artistek

euren emozioak adierazten zituen artelanak egitean, eta artelanek emozio horiek islatzen zituzten; ikuslearen pertzepzioa da, baina, interakzio horri amaiera ematen dion elementua. Hala, "Pintura abstraktua abstraktua da. Aurre egiten dizu", esan zuen Pollockek 1950ean; izan ere, obra erakusteko moduak elkarraldi horren indarra areagotu dezake, Houston-eko Rothko Kapera (Rothko Chapel) gertatzen den bezala.

Erakusketaren Ibilbidea

205. aretoa

Obra goiztiarra

Espressionismo Abstraktuaren aurreneko urteek mugimendua sortu zeneko garai goibela islatzen dute, bi Mundu Gerrek edo Depresio Handiak eragindakoa. Zorigaitzoko garai hura ondo asko antzeman daiteke obra hauetan: Jackson Pollocken *Titulurik gabeko panelak A-D* (*Untitled Panels A-D*, 1934–38) saileko eskeleto ilunak, Mark Rothkok *Barrualdea* (*Interior*, 1936) pinturan irudikatutako arkitektura, edo Philip Gustonen *Portxea* (*The Porch*, 1946–47), non giza irudia mehatxatuta eta makabro ageri den, Holokaustoa gogorarazteko, ziurrenez. 1940ko hamarkadan, konnotazio horiek hizkuntza unibertsalago batera eboluzionatu zuten, sortze-lanetan gai hauek irudikatzeari ekin ziotenean: mitoak —esaterako, Hans Hofmannen *Emakume idolatra I* (*Idolotress I*, 1944)—, arketipoak —Pollocken *Maskulinoa eta femeninoa* (*Male and Female*, 1942–43) totemikoak— eta forma primitibistak —Richard Pousette-Darten *Uhindura* (*Undulation*, ca. 1941–42) laneko basati biomorfoak, adibidez—. Willem de Kooningen motibo abstraktuei halako sentsibilitate subjektiboa darie *Titulurik gabea* (1939–40) pinturan; William Bazioten, Gerome Kamrowski eta Pollockek elkarlanean egin zuten *Titulurik gabea* (1940–41) obran, berriz, gero eta nabariagoa egingo zen joera bat aurkeztu zuten, pintura bere nahierara isurtzen uztean.

Arshile Gorky

Arshile Gorkyk (Khorgom, Armenia, 1904–Connecticut, AEB, 1948) sakonetik ezagutzen zuen artearen historia, eta hasieratik transmititu zion ezagutza hori de Kooningi, hark babestutako artistari. Gainera, ahalmen handiz bat egin zituen Kubismoaren eta Surrealismoaren elementuak, sintaxi berri bat sortzea helburu hartuta. Hala, hizkuntza hibrido hori hasieratik ageri da *Titulurik gabea* (*Gaua, enigma eta nostalgia*) [*Untitled (Nighttime, Enigma and Nostalgia)*, ca. 1931–32] pinturan —Giorgio de Chirico protosurrealistaren eragina antzematen zaion lana—.

Ondoren, kolorearen eta lerroaren maisu bihurtuta, goren mailara heldu zen 1944 eta 1945 bitartean, besteak beste *Loreen errotako ura* (*Water of the Flowery Mill*, 1944) eta *Eskurazina* (*The Unattainable*, 1945) mihiseak sortu zituenean. Gerora, ordea, Gorkyk bizi izandako zoritxarreko gertaera batzuen eraginez —bere estudioak su hartu zuen eta auto-istripu baten ondorioz hilzorian egon zen—, bere lanak kutsu goibela eta elegiako hartu zuen, besteak beste, *Muga* (*The Limit*) eta *Hizlari onak* (*The Orators*) lanetan —biak 1947koak—, 1948an izan zuen heriotza tragikora arte.

206. aretoa

Willem de Kooning

De Kooningek (Rotterdam, Herbehereak, 1904–New York, AEB, 1997), abstrakzioaren eta figurazioaren erdibidean, zirrara bortitz baten antzera menderatzen zuen keinua, efektu piktoriko txundigarriak eta menderakaitzak sortuz. Hasiera batean emakumezko erotismoa behin eta berriro irudikatzen jardun bazuen ere, beste dimentsio bat arakatzeari ekin zion ondoren. Hala, 1949ko *Zot* (“txoroa” esan nahi du nederlanderaz) obrari dramatismoa sumatzen zaio ezkutuan, non irudiaren aztarrenek eta beste zenbait xehetasunek elkar jo eta elkarrekin nahasten diren.

Garai berekoa, *Abstrakzioa* (*Abstraction*, 1949–50) pinturak agerian uzten du artista honen ikonografian —luxuriatik eta galbidetik salbaziorantz mugitzen dena— eragina duen sinbolismo erlijiosoa, eta pintura klasikoaren maisuek giza egoerari buruz egin zituzten hausnarketak eguneratu zituen horrela. Emakumezkoaren errepresentazioa konstante bat da de Kooningen lanean. 1960ko hamarkadan, errepresentazio hori groteskoago bihurtu zen, emakumeak antzemangarriago irudikatu ahala, *Emakumea paisaia balitz bezala* (*Woman as Landscape*, 1965–66) pinturan, besteren artean.

Emakumezko sexualitatearen unibertso bortitzari, de Kooningek metropoli modernoaren kaosa kontrajartzen dio, artistak zioenez “hirira joan edo hiritik itzultzeak” sorrarazten dituen sentimenduen antzera. Hala, *Villa Borghese* (1960) eta *Titulurik gabea* (1961) pinturretan, pastel-koloreko zerrendei halako liberazio kutsua darie, naturak artistari ematen zion gozamina eta sosegua aditzera emanez.

1970eko hamarkadarako, arintasun eta kontenplazio handiagoa sumatzen zaio bere estiloari; horren erakusgarri dugu, *...Zeinaren izena uretan idatzi zen* (...*Whose Name Was Writ in Water*, 1975) obra, non olio-pintura diluituak pintzelkada luzeagoak eta keinuzkoagoak erabiltzeko aukera ematen dion.

Franz Kline

Bere bakarkako lehenengo erakusketan, 1950ean, Franz Klinek (Wilkes-Barre, Pensilvania, AEB, 1910–New York, AEB, 1962) bere obra heldua aurkeztu zuen. Zuri-beltza arakatzeko zuten lanak ziren, kontraesaneko konfigurazioetan eta desoreka bortitzetan bai arkitektonikotzat bai poetikotzat har daitezkeen irudiak sortzen zituztenak.

Franz Klineraren artelanen izenek unibertso berezi bat aditzera ematen digute: bere jaioterri Pensilvaniako meatzaritzako eskualde industrialeko pertsonen eta espazioek osatutakoa, kutsu europar erromantikoaz gainera, mundu goibel bat erakusten digun *Requiema* (*Requiem*, 1958) pinturan adibidez. Erabiltzen dituen pintzelkada monokromatikoek bat-batekoak ematen badute ere, bere teknika gehien aztertu zenetako bat izan zen espresionista abstraktuen artean. Klinek, sarritan, marrazkietatik abiatuta sortu ohi zituen bere pinturak; gauez lan egiten zuen eta pintura komertzial diluituak eta brotxa lodia erabiltzen zituen, bere lan ezagunenetakoan, 1952ko *Titulurik gabea*-n, adibidez.

Bere bizialdiaren azkeneko urteetan —nahiko gazte oraindik—, dinamismo horizontal paregabea sortzea lortu zuen, eta berriro ekin zion distira ia fluoreszentea erabiltzeari, bere drama handien zauri biziak nabarmentzeko, *Andrus*-en adibidez —bere bihotzeko gaixotasuna tratatu zion medikuaren izenetik hartua—.

207. aretoa

Mark Rothko

Mark Rothkok (Daugavpils, Errusia —orain Letonia—, 1903–New York, AEB, 1970) 1950eko eta 1960ko hamarkadetan sortu zituen pinturek bikainki laburbiltzen dute ahalmen handiko giza sentimenduen – tragedia, estasia, zorigaiztoa, hark zioen bezala—pertonifikazio abstraktuak irudikatzeko haren nahi bizia. Hain antzemangarriak diren Rothkoren laukizuzen esekiak era askotara interpretatu izan dira: giza presentziaren ordezkioak, paisaiaren sinbolo abstraktu eta sublimateak edo gogo-aldarteen espresioa, besteren artean.

Bere konposizioetan —ituraz oso sinpleak— narratiba oro ezabatzean, erreakzio emozional zuzenagoa izatea ahalbidetzen dio ikusleari irudiaren aurrean. Rothkok “façades” (fatxadak) deitzen zien bere pinturei, eskatu egiten diotelako ikusleari pinturaren aurre-aurrean jartzeko eta, aldi berean, halako hipnotismo enigmatikoa sumatzen zaielako —fatxadek, definizioz, kanpoaldea agerian utzi eta, aldi berean, ezkutatu egiten dute barrualdea—. Rothkoren pinturetako aureolek, kolore-eremuak zenbaitetan mugatzen dituztenek, halako argitasuna ematen diete, baita baretasun eta dramatismo arteko nahasketa arraro bat ere, esaterako, 1952–53ko *Titulurik gabea* “argizko paretan” —Guggenheim Bilbao Museoren Bildumakoa—.

Rothkok mihise koloretsuak edo ilunago batzuk sortu bazituen ere bere bizitzako etapa desberdinetan, 1957az geroztik iluntasuna izan zen nagusi bere lanean. Hemen ikusgai dauden pinturretan ondo antzeman daiteke argiarekiko bere hasierako kezka zena nola bilakatu zen gerora itzalen inguruko azterlana.

209. aretoa

Jackson Pollock

Pollock (Cody, Wyoming, 1912–Springs, New York, 1956) Espresionismo Abstraktuaren aitzindaritzat hartzen da. 1943an Peggy Guggenheim bildumagile eta mezenasen etxerako pintatu zuen mural erraldoia mugarria izan zen Espresionismo Abstraktuaren historian, bai Rothko bai Gorky hurrengo urtean euren mihise handienak sortzera bultzatu zituena. *Horma irudia* (*Mural*, 1943) lanak, tratamendu piktoriko ausarta eta tamaina kolosala konbinatzen dituenak, segurtasuna eman zion Pollocki bere ondorengo beste lan batzuetan pinturaren prozesua arakatzeko —*HMren erretratu* (*Portrait of HM*, 1945) eta *Gaueko lanbroa* (*Night Mist*, 1945) mihiseen azalera ikargarrietan—, 1947–50eko bere estilo bereizgarria lortu zuen arte.

Prestatu gabeko mihisea zoruan zabaldua, Pollockek pigmentuak isuri eta ziprztindu egiten zituen gainean, kontrol harrigarriarekin bere gorputzaren erritmoari jarraitu eta labirintoak sortuz, adimenaren idazkera antzeko bat nahiz muskuluen lasaialdia iradokitzen dutenak. Artistak honela azaldu zituen aparteko trazu horiek: “ikusgarri bihurtutako energia eta mugimendua, espazioan etendako oroitzapenak”. Eta baliteke deigarriena izatea Pollocken hain estilo bereziak, muga bat adieraztetik urrun, hain efektu anitzak sortzeko aukera ematea.

Pollock 1956ko udan hil zen. Bere emazte Lee Krasnerrek, traumatizatuta, ezin izan zuen ihes egin haren itzal handitik 1960ra arte: urte hartan, erritmo saltokariez eta bektore makurrez osatutako mihise kolosal bat sortu zuen, *Begia da lehen zirkulua* (*The Eye Is the First Circle*), Pollocken lorpen erradikalari egin zaion

omenaldirik handiena, ziurrenez. Antzeko barne-handitasun sentrazioa 1940ko hamarkadaren bukaeran Krasnerrek eta Janet Sobel artista ukrainiar-estatubatuarrek sortutako eremu ia mikrografikoetan ere antzeman daiteke. Gainera, litekeena da aurretik Sobelen pintoretako mikro eta makrokosmosaren bategiteak Pollocken miresmena piztu izana eta, ondorioz, hark *all-over* pintura-estiloa bere egin izana gerora. Bestetik, Robert Motherwellen 200 *Espainiako Errepublikari elegiak (Elegies to the Spanish Republic, 1965–75)* pinturak ere kontenplaziozko kutsua dute; areto honetan ikusgai dagoen bertsioa Pollocken *Horma irudian* inspiratu zen, eta horrexegatik har daiteke artistaren omenaldizat ere bai. Eta David Smith-en *Andel totema III (Tanktotem III, 1953)* eskulturak berak ere *Horma iruditik* hartutako presentzia harro bezain itzela gogora ekartzen digu, hiru dimentsioko eremura eramana.

203. aretoa

Barnett Newman eta Ad Reinhardt

Jatorri eta izaera desberdineko bi artista hauek, Barnett Newmanek (New York, AEB, 1905–New York, AEB, 1970) eta Ad Reinhardtek (Bufalo, New York, AEB, 1913–New York, AEB, 1967), muturreraino eramán zuten kolorea, eta absoluturantz bideratu zituzten dagozkion asoziazio apaingarriak eta sentzorialak. 1940ko hamarkadaren bukaeran, Newmanek finkatuta zituen ordurako bere pinturaren motibo nagusiak: bertikalak, “zips” (kremailerak) izenez ere ezagunak, arreta-eremuak sortzeko balio izan ziotenak, eta *continuum*, kolore biziko eremu horiek egituratzen dituen. *Galaxia*-n (*Galaxy*, 1949), kosmos enbrionario bat iradokitzen digu Newmanek; *Eva*-n (*Eve*, 1950) eta *Adam*-en (*Adam*, 1951–52), berriz, lerrozuzenek, lur-koloreko marroiekin eta gorriekin konbinatuta, izaera organikoa hartzen dute, bikotea kreaizozko ekintzaren bat iragartzen ariko balitz bezala. *Ulises*-en (*Ulysses*, 1952) eta *Argi profila*-n (*Profile of Light*, 1967) urdinak ozeanoaren handitasuna gogora ekartzen digu lehenengoan, eta bigarrenak, berriz, halako gorentasun transzendentala aditzera ematen digu.

Reinhardtek, bere aldetik, laukizuzena hartzen du oinarritzko pinturaren elementutzat, kroma eta koloreen itxurazko saturazioa ahalik eta gehien kondentsatzeko. 1950eko hamarkadan sortu zituen gorriak eta

urdinak belzten joan ziren, hutsaren eta ezeztazezinaren ideia iradokitzeko. 1953az geroztik, Reinhardtek koadro “beltzak” bakarrik pintatu zituen, era horretan artea bere purutasunera eramatea lortu nahian. Itxuraz monokromatikoak izan arren, obra horiek koadrikulez osatuta daude, gorri, urdin eta berde kolore bereziekin margotuta, ikusmenaren mugak proban jartzen dituen interakzio hipnotiko batean.

202. aretoa

Epizentro zehaztugabe bat

Espressionismo Abstraktua New Yorken sortu bazen ere, erroak zabaldu zituen AEBtako Mendebaldeko Kostako zenbait artista harrapatzeraino; besteak beste, Sam Francis (San Mateo, Kalifornia, AEB, 1923–Santa Monica, Kalifornia, AEB, 1994). Francisen obrak eboluzio bat egin zuen motibo korpuskularrez betetako konposizio monokromatikoetatik hasi eta tonu biziz jositako beste motibo batzuetara joan eta gero, espazio ireki garaietara iritsi arte.

1950eko hamarkadan Francisen obrak konposizio ia erabat monokromatiko eta motibo korpuskularrez jositatik tonu biziz blaituriko beste batzuetara eboluzionatu zuen; eta, azkenik, huts enpireo arrarotuk

gogorarazten dizkiguten espazio zabal garaietara jo zuen. Batzuetan espresionista abstraktuak "kolore-eremuko" pintoretan eta "keinuzko" pintoretan sailkatzen zituzten, eta sailkapen guztiz ordenatuetatik harago, 1950eko hamarkadaren bigarren erdian, Gustonek, Joan Mitchellek eta Helen Frankenthaler gazteak beren palimpsesto bisualak garatu zituzten. Mitchellen *Agur egiten dizut, Tom* (*Salut Tom*, 1979) obra apoteosiko bat da, non eguzkiak eta itzalak elkarri aurre egiten dioten.

Koadriptiko formatuak —nolabait ere Moneten *Nenufarrak* (*Nymphéas*) inguratzailak gogorarazten dizkigunak— artistak barruan daraman paisaian duen fedea goresten du. Berriro ere, ordea, agur baten sentsazioa uzten du: Espresionismo Abstraktua defendatu zuen Thomas B. Hess kritikariari egindako omenaldi bat da titulua. Bai Gustonen enpaste, nahiz eta hauskor, jori-oparoetan, bai Mitchellen pintzelkada bizkor eta ukituzkoetan edo Frankenthalerren lausodura lirikoetan —mihisean zabaldu ahala mito eta oroitzapenen zertzeladak sumarazten dizkigutenetan—, artista haietako bakoitzak kolorearen eta keinuzkotasunaren arteko bere fusio propio eta berezia sortu zuen.

"Fenomeno" hobe, "mugimendu" baino

Azkenetako faseetan, espresionista abstraktuek, euren indibidualismoari irmo eutsiz, norabide desberdinetatik jo zuten. Artista batzuek iluntasuna zuten gustuko, eta horren erakusgarri dugu Motherwellen *Platonen leizean, 1. zk.* (*In Plato's Cave No. 1*, 1972). Tworikov-en *Ralention II* (*Idling II*, 1970) obra, meditazio sakon batean murgilduta, bere lagun Rothkoren heriotza bisual latzaren osagarri isil bezain adierazgarria da —marjina zuriek zehaztutako urruntasuna aditzera ematen digute bere azkeneko pinturek—. Bere aldetik, Mark Tobeyren lanei espiritualtasuna darie alde guztietatik. *Parnaso-n* (*Parnassus*, 1963), lerro beltz dinamiko batzuek zen kaligrafiak Tobeyrengan izan zuen eragina erakusten digute —haren "idazkera zuria" bilakatu zen azkenik bere estilo bereizgarria—. Beste artista batzuek eremu argitsuagoak landu zituzten, William Baziotesez, besteak beste —bere mundu urtarrean, tentakuludun mamuak noraezean dabilta sakontasun fosforeszenteetan—. Baziotesez irudikatutako biztanle mitikoek, primitibismoa iradokiz, Espresionismo Abstraktuan hasieratik antzematen den interes hori aditzera ematen digute, testura opaleszenteek adimenaren begiak urrutitik ikusitako unibertso bat iradokitzen diguten bitartean. 1960ko hamarkadaren bukaeran, Gustonek, bere aldetik, atzera egin zuen bere sorburuetara, eta berriro ekin zion irudi figuratiboak pintatzeari —kritika garratzak jaso zituenez artea baztertzea erabaki zuen horregatik—.

Gustonen figurazioa bere aurrenetako lanetan ikus daiteke, eta *Itsasbehera* (*Low Tide*, 1976) obran jasotzen da hemen, non abstrakzioaren itsasbeherak pasadizo kezkarriak agerian utziko dituen. Gustonen apokalipsi isila metafora piktoriko egokia da ere bai: ferrak agertzen dira, aldi berean "omega" hitzaren parodiatzat har daitezkeenak —azken letra alfabeto grekoan—. Ludi zitalak, argitara irten, eta Espresionismo Abstraktuaren horizonte gorrixkan ezartzen dira.

204. aretoa

Argazkilaritza

1952an Harold Rosenberg kritikariak "ekintza-pintura" gisa definitu zuenean Espresionismo Abstraktua, baztertu egiten zuen zerrendatik argazkilaritza. Hala eta guztiz ere, Aaron Siskind-ek harreman estua zuen Espresionismo Abstraktuko pintoreekin, baita Minor White-k ere, urteetan Clyfford Stillekin batera irakaskuntza aritu izanak. Siskindek eta beste argazkilari batzuek —Frederick Sommer-ek, besteak beste—

jasotako marka, grafiti eta testura nabarmenek pinturetan aurkitzen ditugun bortiztasun, iluntasun eta berehalakotasunarekiko kezka espresibo bera aditzera ematen digute. Bai Harry Callahan-ek bai Herbert Matter-ek —Pollocken lagun mina—, Albanian jaiotako Gjon Mili-k —*Life*ko argazkilaria emankorrek— eta Barbara Morgan-ek, pintoreen helburuekin bat etorritik, ideograma abstraktuak eta mugimendu bizkorak iradokitzen zituzten euren argazkietan. Argazkitan jasotako eragin handieneko irudien artean Hans Namuth-enak ditugu, Pollock bere jardunean murgilduta erakusten dutenak, Espresionismo Abstraktuaren definizio mugatua eta hierarkizatua zabaltzeko balio izan zutenak.

208. aretoa

Clyfford Still

Clyfford Still (Grandin, Ipar Dakota, AEB, 1904–Baltimore, Maryland, AEB, 1980) *outsider* konbentzitu bat izan zen beti. Stillek oso harreman estua zuen Mendebaldeko lurralde bereziaren handitasunarekin, eta 12 urte besterik ez zituen eman New Yorken bizitzen. Hala, hirigune artistikotik hain urrun bizitzeak eragina izan zuen bere originaltasunean. Berezko erraztasuna zuen marrazteko, artearen historia ondo ezagutzen zuen, eta maisu handi batzuen jarraitzaile porrokatua zen —paradoxikoki horrek piztu zuen Stillen erradikaltasuna, Espresionismo Abstraktuaren hastapenetako mugarrietako bat den *PH-235* (1944) lanean dagoeneko iragarria—. Paisaia zabaletatik hasita, bertikaltasuna gai nagusi bihurtu zen bere obran, “bizi-lerro” lerdan-lerdanez nahiz monolito sendoen bitartez irudikatua. Stillek gizaki zutituaren zuzentasunarekin eta transzendentzia espiritualarekin lotzen zuen bertikaltasuna —leize handiak lirateke horren kontrakoak—.

Era horretan, argitasunaren eta iluntasunaren arteko borrokatik aske dihardu bere lanean, nolabait ere bizitza eta heriotza bat egiteko modua, alegia.

Lehen aldiz, Denverreko Clyfford Still Museum-ek —artistaren obraren %95aren jabe— haren garrantzizko bederlatzi mihise eman dizkio maileguan erakusketari, hala, artista hau Espresionismo Abstraktuaren lehen lerroan kokatuz.

David Smith (areto batean baino gehiagotan)

1934an, David Smith (Decatur, Indiana, AEB, 1906–Vermont, AEB, 1965) metalezko eskulturak soldatzen hasi zen, oxiazetilenozko soplete bat erabiliz. Hala, horiek izan ziren ziurrenez AEBtako metal soldatuzko lehenengo eskulturak. Handik gutxira, soldadura komertzialeko enpresa bat ezagutu zuen Brooklynen, Terminal Iron Work, alegia. David Smith espresionista abstraktuen lehen belaunaldiko eskultore nagusia da, eta bere ideiek eta unibertso bisualak, orokorrean, mugimenduaren kezka berak jasotzen zituzten.

Areto desberdinetan banatutako eskulturak Smith-ek 1940ko hamarkadaren amaieratik 1965era —goiztiar hil zen urtea— bitartekoak dira eta eskultorearen eta pintoreen arteko etengabeko interakzioa erakuste digute. Bere lanetako batzuek forma zutituak jasotzen dituzte, giza presentzia termino abstraktuetan gogora ekartzen dituztenak; eta beste batzuek izaera bortitzagoa erakusten digute, mekanizista zenbaitetan, eta arkitektonikoa besteetan —*Cubi XXVII* (1965) eskulturaren altzairu herdoilgaitzezko gainazal distiratsua dugu adibideetako bat—.

Didaktika Gunea

Didaktikako korridorean, bigarren solairuan, Espresionismo Abstraktua gertaera politikoekin —Gerra Hotzarekin, besteak beste— zuzenean lotuta egon zela azaltzen da. Testuek, irudiek eta film zatiek politikaren eta kulturaren alorretako aldaketa sakonen berri ematen digute, New York artearen nazioarteko hiriburu bihurtu zirenekoak.

Partekatutako hausnarketak

Museoko profesionalak gidatutako bisitaldi hauen bidez ezagutu erakusketen obra esanguratsuenak, muntaiaren zokoak eta bestelako bitxikeriak.

- Otsailak 15, asteazkena, Arte arduradunen ikuspegia, Lucía Agirre, arte arduraduna.
- Otsailak 22, asteazkena, Funtsezko kontzeptuak, Marta Arzak, Hezkuntza eta Interpretazio zuzendariordea.

Topagunea: informazio-mahaia. Ordua: 18:30–19:30. Sarrerak: 3 €(2 €Lagunak), ez dago barne Museorako sarrera; webgunean soilik salgai. Gutxienez 8 pertsona talde bakoitzeko; gehienez 20.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

Katalogoa

Espresionismo Abstraktua erakusketarekin batera, irudidun katalogo bat argitaratuko da. Bertan jasotzen diren testuak egile hauenak dira: David Anfam, kanoniko bihurtutako *Abstract Expressionism* (1990) liburuaren egilea; Susan Davidson, New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-eko Arte Arduradun Seniorra, Bildumak eta Erakusketak; Edith Devaney, Proiektu Garaikideen Arte Arduraduna, Royal Academy of Arts; Jeremy Lewison, Tate-ko Bilduma Zuzendari ohia; Carter Ratcliff, *Fate of a Gesture: Jackson Pollock and Postwar American Art*-en (1996) egilea; eta Christian Wurst, *The Catalogue Raisonné of the Drawings of Jasper Johns*-en (laster aterako da argitara) ikerlaria.

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa
Marketin eta Komunikazio Arloa
Tel: +34 944359008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsa irudiak:
Expresionismo Abstraktua
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Willem De Kooning

Titulurik gabea, ca. 1939

Olio-pintura paper gainean, mihise gainean muntatua

95,8 x 73,7 cm

Bilduma pribatua

© The Willem de Kooning Foundation, New York /VEGAP, Bilbo, 2016



Jackson Pollock

Maskulinoa eta femeninoa (Male and Female), 1942-43

Olio-pintura mihise gainean

186,1 x 124,3 cm

Philadelphia Museum of Art. Hauen dohaintza: Mr and Mrs H. Gates Lloyd, 1974

Argazkia: Philadelphia Museum of Art

© The Pollock-Krasner Foundation VEGAP, Bilbo, 2016



Jackson Pollock

Horma irudia (Mural), 1943


Olio-pintura eta kaseina mihise gainean

243,2 x 603,2 cm

The University of Iowa Museum of Art. Honen dohaintza:

Peggy Guggenheim, 1959.6

© The Pollock-Krasner Foundation, VEGAP, Bilbo, 2016



Philip Guston*Portxea (The Porch)*, 1946–47

Olio-pintura mihise gainean

147,6 x 91,4 cm

Illinois Unibertsitateko patronatua, Krannert Art Museum-en izenean, Champaign. Honen eskuratzea: Illinoisko

Unibertsitatea, 1948-10-1

© The Estate of Philip Guston/Cortesía Hauser & Wirth

**Barnett Newman***Galaxia (Galaxy)*, 1949

Olio-pintura mihise gainean

60,1 x 50,8 cm

Hauen bilduma: Lynn eta Allen Turner

© The Barnett Newman Foundation, New York/ VEGAP, Bilbo, 2016

**David Smith***Izarren kaiola (Star Cage)*, 1950

Altzairu margotua eta orraztua

114 x 130,2 x 65,4 cm

Frederick R. Weisman Art Museum at the University of Minnesota, Minneapolis.

The John Rood Sculpture Collection

© The Estate of David Smith, VAGA, New York / VEGAP, Bilbo, 2016

**Clyfford Still***PH-950*, 1950

Olio-pintura mihise gainean

233,7 x 177,8 cm

Honen eskaintza: Clyfford Still Museum, Denver, Colorado

© City and County of Denver, VEGAP, Bilbo, 2016

**Robert Motherwell***Horma irudia, III. zk. (Wall Painting No. III)*, 1953

Olio-pintura mihise gainean

137,1 x 184,5 cm

Bilduma pribatua. Honen eskaintza: Hauser & Wirth

© Dedalus Foundation, Inc. /VAGA, New York/VEGAP, Bilbo, 2016

**Mark Rothko***Zerrenda horia (Yellow Band)*, 1956

Olio-pintura mihise gainean

218,8 x 201,9 cm

Sheldon Museum of Art, University of Nebraska – Lincoln. Sheldon Art Association, Thomas C. Woods Memorial, N-130.1961



© 1998 Kate Rothko Prizel and Christopher Rothko/VEGAP, Bilbo, 2016

Argazkia: © Sheldon Museum of Art

Helen Frankenthaler

Europa, 1957

Olio-pintura mihise gainean

177,8 x 138,4 cm

Helen Frankenthaler Foundation, New York

© Helen Frankenthaler / VEGAP, Bilbo, 2016

Argazkia: Robert McKeever



Conrad Marca-Relli

Ekialdeko horma (LL-10-59) [East Wall (LL-10-59)], 1959

Collagea eta baliabide anitzak mihise gainean

197,5 x 305 cm

Bilduma pribatua, Parma, honen eskaintza: Archivio Marca-Relli

© Archivio Marca-Relli, Parma.

Argazkia : Roberto Ricci



William Baziotés

Itsasgizona (Mariner), 1960–61

Olio-pintura mihise gainean

167,8 x 198,2 cm

Blanton Museum of Art, Texaseko Unibertsitatea, Austin.

Hauen dohaintza: Mari eta James A. Michener, 1991

© The Estate of William Baziotés



Willem De Kooning

Titulurik gabea (Emakume bat basoan)

[*Untitled (Woman in Forest)*], ca. 1963–64


Olio-pintura paper gainean, masonita gainean muntatua

73,7 x 86,4 cm

Bilduma pribatua

© The Willem de Kooning Foundation, New York /VEGAP,

Bilbo, 2016



Jack Tworkov

Ralentian II (Idling II), 1970

Olio-pintura mihise gainean

203,2 x 177,8 cm

Hauen eskaintza: The Estate of Jack Tworkov eta Alexander

Gray Associates, New York

© Estate of Jack Tworkov/VEGAP, Bilbo, 2016

